

KRISTAU ESKOLA

ESKOLA EREDUA



AURKIBIDEA

- 4** I. HITZAURREA
- 5** II. GIZARTE ETA HEZKUNTZA TESTUINGURUA
- 7** III. NORTASUN ETA IZAERA PROPIOA
- 8** IV. HEZKUNTZA EREDUA
- 19** V. ANTOLAKUNTZA EREDUA

I. HITZAURREA: ESKOLA, BIZITZARAKO HEZKUNTZAREN LEKUA

1. PROIEKTUA

Bidaide Fundazioak, KRISTAU ESKOLAREN parte den aldetik, hezkuntza integralerako proposamen bat izan nahi du bere ikastetxeen bidez. Eta proposamen horren bidez, erantzun koherentea, eraginkorra eta efizientea eskaintzen die pertsonaren eta gizartearen garapen beharrei, eta aberastu egiten du Euskal Hezkuntza Sistema, elementu erantsi bereizgarri batekin: kristau humanismoa identifikatzen duen bizitzaren eta munduaren zentzua.

2. DEIA

Bidaide Fundazioaren ikastetxeek, beren inguruko errealitateari eta inguruko hezkuntza eskaerei adi, eta kristau humanismoaren balioetan oinarritutako Hezkuntza-Pastoral Proiektu bati jarraiki, fedearen, kulturaren eta bizitzaren arteko elkarrizketa foro iraunkorra izan nahi dute, eta aktiboki parte hartzen dute Euskal Hezkuntza Sistemaren gaur egungo eta etorkizuneko hezkuntzaren munduan, kalitate ezaguneko hezkuntza proposamen batekin erantzuteko gai diren hezkuntza komunitateen bidez.

3. PROPOSAMENA

Bidaide Fundazioaren ikastetxeek, beren ateetara hezkuntza bila iristen diren familia eta pertsona guztiei eskaintzen dizkiete harrera solidarioa, profesionaltasuna eta kristau humanismoan oinarritutako Hezkuntza-Pastoral Proiektu bat.

Hezkuntza premiei behar bezala erantzuten diete, hazkunde integraleko proposamen baten bidez. Proposamen horrek kontuan hartzen du pertsona bakoitzaren talentuen aniztasuna, bizitza osoan zehar ikasteko prestatzen ditu ikasleak, eta barnekotasuna garatzen eta transzendentziara irekitzen laguntzen du.

4. KOMPROMISOA

Bidaide Fundazioaren ikastetxeek, ezagutzaren eta bikaintasunaren gizartearen garapenarekin konprometituta, aldaketari, berrikuntzari, sorkuntza itaunari, barnekotasunaren lanketari eta gizarte eraldaketari ateak irekitzen dizkion hezkuntza eskaintza sustatzen dute.

Bidaide Fundazioaren ikastetxeen Hezkuntza-Pastoral Proiektua, pertsonen arteko harremanen kalitatea eta giroa, eta hartzailleekiko konpromisoa lagungarriak dira ikasleentzat, beren bizitzaren zentzua ulertzeko, munduan betetzen duten lekua ezagutzeko, zoriontasunerako zenbait gako eskuratzeko, eta beren adimen logiko, emozional eta morala modu harmonikoan garatzeko.

Gure hezkuntza integraleko proiektuak eta lan metodologiak gure hezkuntza komunitateetako kideen konpromisoa sustatzen dute, gizartea hobetzeko.


II. GIZARTE ETA HEZKUNTZA TESTUINGURUA



1. Gizarte konplexu batean bizi gara, erronka berriekin, etengabeko aldaketekin eta erabateko behin-behinekotasunean

XXI. mendearen lehen laurden honen ezaugarrietako bat da gizartearen egitura elementu guztietan gertatzen ari diren aldaketen abiadura, irudikatzea lortzen ez dugun etorkizun bateranzko bilakaeran. Bizi garen leku honetatik, lehen mundutik, ikusten dugu prozesu batean murgilduta gaudela, zeinean etengabe agertzen erronka berriak, duela gutxira arte imajinaezinak zirenak.

Badira gizartean presentzia handia duten gaiak, hala nola genero berdintasuna edo larrialdi ekologikoa, bai eta zenbait erronka ere, ekonomiaren eta lanaren globalizazioa adibidez, eta horiek denak justiziaren eta berdintasunaren ikuspegitik landu behar dira pertsona guztiei begira. Egoera horren aurrean, zientziaren eta teknologiaren berrikuntzek, beren ondorio sozialekin, baita etikoekin ere, jakintzaren behin-behinekotasuna eragiten dute, eta gizartea gero eta konplexuagoa da, eta bere antolaketa bera ere aldatzen ari da, egiturazko elementuei eraginez, hala nola familiaren kontzeptuari eta balioei.



Etengabe aldatzen den esparru horretan, uste dugu hezkuntza oinarrizko zutabe bat dela pertsonak bizitza osoan garatu ahal izateko, beren ahalmen indibidual eta sozial osoan, eta, belaunaldi berrien ikaskuntza eta prestakuntza prozesu horretan, erakunde nagusietako bat eskola da.

Bestalde, testuinguru horrek inoiz baino garrantzitsuagoa egiten du gure ikastetxeen eta hezkuntza komunitateen proiektua; izan ere, gizarte konplexu, kulturarteko eta erlijioen arteko honetan funtsezko balioak transmititzea zaila denez, bide berriak behar dira pertsonaren zentzua eta dimentsio erlijiosoa bilatzen laguntzeko.

Beraz, eskolak erantzukizun handia du: ikasleei bizitzan agertuko zaizkien erronkei aurre egiteko beharrezkoak diren konpetentziak emateko erantzukizuna. Arreta berezia jarri behar da pentsamendu kritikoa eta sormenean, eta ikasleen irteera profila definitu behar da, etengabe berrikusiz eta errealitate berrietara egokituz.

Eskolaren eremu zehatzean ere aldaketak gertatzen ari dira oinarrizko hezkuntza erreferentzietan:

- Familiaren konfigurazioa eta eskolarekin duen harremana.
- Bilakaera demografikoak eraginda, seme-alabak arreta gune nagusi bihurtu dira, eskubideen subjektu gisa.

- Hezitzaileen ikuspegi soziala.
- Ikasleen irteera profilean jasotako gizarte eskakizunen arreta.
- Eskolaz eta familiaz kanpoko eragile berrien agerpen esponentziala, bizitza pertsonalean eta sozialean eragiteko ahalmenarekin.
- Ikastetxeen hezkuntza eta ebanjelizazio misioarekiko identifikazioa eta kohesioa.
- Arau esparruaren behin-behinekotasuna, iraganeko garai batera egokitutako legedia batean oinarrituta.

Testuinguru hori modu globalean presente badago ere, denboraren ikur gisa, tokiko errealitateak ere baldintzatzen du gure hezkuntza lana. Horrela, kontuan hartuta Euskal Autonomia Erkidegoaren egoera sozio-linguistikoa, eta hori errealitate demografiko berrietara egokitzeko, beharrezkoa da errealitate horri erantzungo dioten ekintzak antolatzea, euskara eta euskal kultura ardatz hartuz, eta horiek beste kultura batzuekiko elkarrekintzan transmitituz eta biziz.

2. Gako berriak gure gain hartzen ditugu, hezkuntza misioaren baitan

Gizarte honetan, gizarte, kultura eta erlijio ikusmolde ezberdinak edo kontrajarriak daude, eta bizitzaren zentzuari eta hezkuntza balioei buruzko galderen erantzunak askotarikoak direnez, gure hezkuntza komunitateek egoera horri heltzen diote, zentzua bilatzeko elkarrizketa ireki batetik abiatuta.

Bestalde, Bidaide Fundazioak hezkuntza proiektu bat eskaintzen du, pertsona hezkuntza ekintzaren erdigunean jartzen duena, eta sustatzen dituena fedearen, kulturaren eta bizitzaren arteko elkarrizketa, ingurunea eraldatzeko esperientziak, pertsonen eskubideen eta betebeharren gauzatzea, eta kulturaren eta ezagutzaren garapena, pertsonen garapen integralerako zerbitzu gisa, Euskal Hezkuntza Sistemaren esparruan.

III. NORTASUN ETA IZAERA PROPIOA

1. Kristau nortasuna duen proiektu bat sustatzen dugu

Familien eta ikastetxeen eskubideak askatasunez gauzatzeko ezinbestekoa da proiektuak anitzak izatea, gure gizartearen errealitate pluralarekin bat datozen hezkuntza eskemak askatasunez aukeratu ahal izateko.

Horregatik, Bidaide Fundazioak eskola munduan duen presentziaren originaltasuna sustatzen eta defendatzen du, gardentasun osoz eskaintzen du Hezkuntza-Pastoral Proiektu bat eta, aldi berean, hezkuntza instantziei eskatzen die errespetua, laguntza eta ekitatea, hezkuntzaren hartzaille guztiek eta haien familiek hautatzeko aukera berak izan ditzaten.

Bidaide Fundazioaren ikastetxeen hezkuntza proiektuen originaltasuna eta ezberdintasuna, Euskal Hezkuntza Sistemaren testuinguruan, pertsona kristau antropologia batetik ulertzeko moduarekin bat datozen eskaintzetan datza. Hortik abiatuta, bizitza pertsonalaren eta sozialaren ikuspegi transzendente batean inspiratzen da, bai eta Fundazioaren hezkuntza sistemak eta eskola bakoitzaren eguneroko jardunaren kudeaketa ezaugarritzen dituzten balio koadro propio batean ere.

2. Misio batera deituak: hartzailleen hezkuntza integrala

Bidaide Fundazioak Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza sarean duen presentziak eta hezkuntza eskaintzak, halaber, misio batekiko identifikazioari eta konpromisoari erantzuten dio: pertsonen ezagutza eta garapen integrala ahalbidetzea eta bultzatzea, eta bizi kalitatearen eta besteei harremanen hobekuntza sustatzea, kultura eta erlijio anitzeko mundu batean.

Horregatik, pertsona bakoitzaren etengabeko hazkundera bultzatzen dugu, ahalik eta gehien garatzeraino, eta bultzatzen ditugu ere giza komunitate baten eskola, bizitza eta lan esperientzia, ezagutzaren sorrera eta pertsonalizazioa, fedearen, kulturaren eta bizitzaren integrazioa, eta ahalegin eta konpromiso pertsonala, pertsona bakoitzaren aukeren arabera, kontuan hartuta pertsonak gizarte eraldaketaren eragileak direla.

3. Bizi eta misio komunitateetan batuta

Beren nortasunetik abiatuta, Bidaide Fundazioaren ikastetxeak hezkuntza komunitate gisa eratzen dira, komunitate horietan parte hartu nahi duten pertsoneri eta taldeei irekita, eta beren hezkuntza sistemen nortasuna eta gako operatiboak errespetatuz.

Horietan, seme-alabentzat gure Hezkuntza-Pastoral Proiektua aukeratzen duten familiek, irakasleek eta hezitzaileek, bai eta ikasleek

eurek ere, misio komun bat dugu pertsonaren hezkuntza integrala lortzeko, gure zereginarekin konprometitu eta koherentea, eta familiarekin eta komunitatearekin lankidetzan, ikasgela barruan nahiz handik kanpo.

Bidaide Fundazioaren ikastetxeek hezkuntza jarraitutasuna eta koherentzia bultzatzen dituzte familiaren eta eskolaren arteko harremanean, eta barne kohesioa indartu eta eskola hezkuntza komunitate gisa eratzen dute. Hau da, giza harremanetarako espazio gisa, pertsonen hazkundea ahalbidetzeko elkarrekiko konfiantzazko giroan eta elkartasunaren eta erantzukizun komunaren balioak aintzat hartuta.

4. Kristau Eskolaren hezkuntza eta sormen tradizioarekiko leiala den hezkuntza eta kudeaketa estiloa



Bidaide Fundazioaren ikastetxeetan, Kristau Eskolaren baitan, hezkuntza eta kudeaketa estiloak fundatzaileengandik jasotako hezkuntza tradizioari jarraitzen dio.

Bidaide Fundazioaren ikastetxeek honako hauek partekatzen dituzte: ezagutzaren eta pertsonen garapenarekiko konpromisoa, munduaren, gizartearen eta pertsonen ikuspegi positibo eta konprometitu batean inspiratzea, sormena eta malgutasuna egoera berrien aurrean, justizia, egia eta guztion ongia bilatzeko konpromiso iraunkorra, eta etengabeko kalitate eta berrikuntza eskakizunetara egokitzea.

IV. HEZKUNTZA EREDUA



Bidaide Fundazioaren ikastetxeen helburua da ikasleei bizitza oso bat izateko hezkuntza eskaintzea. Hau da, hezkuntza espazioak eta prozesuak sortzea, eta ikasle bakoitzari fedea-kultura-bizia sintesia formulatzen eta bizitza pertsonalean, sozialean, akademikoan eta profesionalean garatzen jarraitzeko oinarriak finkatzen laguntzea, era horretan birformulatzeko eta sortzen diren agertoki berrietara egokitzeko gaitasuna izan dezaten. Hauek dira xede horrekin garatu beharreko zutabeak:

- Zentzua bilatzea eta bizi proiektua aurkitzea.
- Transzendentziaren eta Nazaretoko Jesusi irekita egotea.
- Gaitasunak eta talentuak erabat ezagutzea eta garatzea.
- Norberaren balio koadroa garatzea.
- Gizarte justu eta inklusibo baten sorreran parte hartzea eta ingurumena zaintzea.
- Egoera berrietara irekitzea eta bizi osoan ikasten jarraitzeko ekimena izatea.

1. HEZKUNTZA INTEGRALERAKO PROPOSAMENA

Hezkuntza integrala, hezkuntza paradigma berri bati erantzuten dion eredua ez ezik, gure hezkuntza lanaren abiapuntua eta muina ere bada. Kristau humanismotik begiratuta, pertsona subjektu berdingabea eta errepikaezina da, baliotsua eta duina berez; potentzial, gaitasun eta talentu propioak ditu, transzendentea da, gauzei zentzua ematen saiatzen da, eta errealitatearen sortzaile da.

Horrela, hezkuntza integralak berekin dakar pertsona hezkuntza ekintzaren erdigunean jartzea, eta hura osatzen duten dimentsioen eta gaitasunen garapena sustatzea. Ikuspegi horrek berezko translazioa du nazioarteko esparruetan nahiz gure testuinguru hurbilean ezarritako oinarritzko kompetentzien esparruan. Esparru horietako bakoitzaren espezifikotasunak alde batera utzita, kompetentzietan oinarritutako ikaskuntza funtsezko paradigma aldaketa bat da hezkuntzaren ikuspegian; izan ere, pertsonaren garapenaren ikuspegi berri bat eskatzen du, haren gaitasunetan eta garapenean oinarritua, eta alde batera uzten du ikasleak edukien hartzaile eta erreproduzitzaile soil gisa hartzen dituen hezkuntzaren eta eskolaren ikuspegia.

Modu integralean hezteak, beraz, hezkuntza humanizatzea esan nahi du: pertsonen gaitasunak indartzea dimentsio guztietan, haien lekua aurkitu dezaten, haien bizitzaren jabe izan daitezen, ingurune aldakor batean jokatzeko jakin dezaten, eta egoera berriei erantzuteko gai izan daitezen, kontuan hartuta haien ekintzek zer inpaktu eta balio duten mundu bidezkoago bat eraikitzeko prozesuan.

Aldaketa hori funtsezkoa eta erabakigarria da ere mundu globalizatu honen aurrean; izan ere, eraldaketak etengabeak dira eta gure ikasleek biziko dituzten egoerak eta jakintzak aldakorrak eta berriak izango dira eta erantzun berriak emateko gai izan beharko dute. Aldaketa, eta neurri batean ziurgabetasuna, konstante bat izango dira, eta ikasleek haiekin bizitzen jakin beharko dute, ahalik eta modu osoenean bizitzeko. Aldi berean, kulturak, balioak eta esanahiak behin-behinekoak eta aldakorrak diren mundu honetan, askoz ere beharrezkoagoa da ikasleek barne oinarri sendoa izatea eta aingura lana egingo duen ikuskera pertsonala garatzea, aukera emango diena beren lekua aurkitzeko, birkokatzeko, garatzeko eta irizpide propioa izateko, beren bizitzako eremu guztietan egoera berriei aurre egiteko garaian.

2. KONPETENTZIETAN OINARRITUTAKO GURE HEZKUNTZA INTEGRALAREN EREDUA: ZIMENDUETATIK EZAGUTZETARA

kompetentzia horien guztien batura. Ikuspegi humanista eta kristau batetik, pertsona bakoitza berdingabea da, eta izan daiteken guztiaren hazia darama bere baitan. Pertsonaren barne dimentsio hori haren garapenaren oinarria da; barne dimentsio horretan, pertsonak bere esentzia aurkitu eta identitatea finkatu dezake, eta bere buruarekin eta inguruarekin duen harremana dimentsio horren mende dago. Bertatik, bizitzako diziplina eta egoera pertsonaletan zein profesionaletan moldatzeko beharrezkoak diren gaitasunak garatu ahal izango ditu. Pertsonaren dimentsioen arteko elkarrizketa baten bidez, barnetik kanpora eta alderantziz, pertsonaren gaitasunak ez ezik, haren ekintzak gidatuko dituzten balioak ere ezarriko dira, eta horrek guztiak zehaztuko du pertsona hori munduan nola egongo den. Horrela bada, gure hezkuntza integralaren eredua oinarria da pertsonaren oinarriak finkatzea, eta, hortik abiatuta, ezagutzak garatzea. Prozesu hori pertsonaren barrutik abiatzen da, eta, hainbat diziplinaren bidez, hezkuntza harremanean jartzen du munduarekin.

HEZKUNTZA INTEGRALAREN EREDUA



Horrela, bi kompetentzia multzo bereizten ditugu, kokatzen direnak pertsonaren barruaren eta izatearen eta munduaren eta haren erronken arteko jarraitutasun batean, eta elkarrekintzan eta elkarriketan bizi dira eta, testuinguruaren arabera, etengabe birdefinitzen dira.

Alde batetik, zeharkako kompetentziak daude, garenarekin eta horren adierazpenarekin eta gauzatzearekin harreman zuzena dutenak; beraz, presente daude bizitzako egoera guztietan. Kompetentzia horiek, "Izaten ikastea" kompetentzian oinarrituta, pertsonaren oinarriak dira. Horiekin batera, beste alde batetik, diziplinazko kompetentziak daude, diziplina zehatzen esparruan garatzen direnak eta diziplina horietarako espezifikoak direnak; beraz, horiek behar ditugu munduarekin erlazionatzeko eta haren eremuetan moldatzeko. Horrela, hezkuntza integralak oinarriak finkatu eta ezagutzak sortu behar ditu: nor garen jakin eta munduan gure lekua aurkitu, gure bizi proiektua aukeratu eta bertan sortuko zaizkigun egoerei erantzuteko gaitasuna izan.

2.1. Zeharkako kompetentziak

Zeharkako kompetentziak “Izaten ikastea” kompetentzian oinarritzen dira, eta, horiei esker, pertsona bakoitza, bere banakotasunetik abiatuta, jabetu daiteke bere buruaz eta prozesu kognitibo, emozional eta motorrez, ekimena izan dezake bere bizitza gidatzeko, eta jakin dezake adierazten eta ingurunearekin erlazionatzen ahalik eta modu positiboenean. Horrela, kompetentzia horien garapen harmonikoak honako alderdi hauek biltzen ditu:

- a) Autoezagutza eta autoerregulazioa dimentsio guztietan.
- b) Zentzu etikoa eta transzendentea garatzea.
- c) Norberaren bizi proiektua aurkitzea.

a) Autoezagutza eta autoerregulazioa dimentsio guztietan

Gizakiaren kontzeptu global batetik, hezkuntza integralak dimentsio psikomotor, afektibo eta intelektualaren garapen harmoniko eta berezia eskatzen du. Horrek esan nahi du honako gaitasun hauek garatu behar direla:

• **Psikomotorrak.** Norberaren gorputz eskema egitea eta antolatzea ahalbidetzen dute:

- Motrizitatea
- Trebetasun sentsozialak
- Gorputz adierazpenerako gaitasuna
- Gorputz eta kirol kulturaren hainbat alderdi

• **Afektiboak.** Jarrera hauek garatzen dituzte:

- Norberaren onarpena eta autoestimua
- Pertsonen arteko harreman eraikitzaileak
- Sexualitate integratua eta heldutasun afektiboa
- Sentsibilitate orekatua bizitzako arazoan eta egoeren aurrean

• **Intelektualak.** Adimen prozesu orokorrak eta espezifikoak garatzen laguntzen dute:

- Printzipioak ulertzea eta egoera berrietan aplikatzea
- Aztertze, erlazionatzeko eta laburtzeko gaitasuna
- Eduki zientifikoen asimilazioa
- Sentsibilitate artistikoa eta estetikoa
- Gaitasun tekniko-profesionalak
- Norberaren sormena garatzea, zientziei eta arteei dagokienez

Gaitasun horiek lantzeak ikasleei laguntzen die beren buruarengan konfiantza izaten eta beren dimentsio sozial, etiko eta transzendentea

heldutasunera eramaten.

b) Zentzu etikoa eta transzendentea garatzea

Gure eskolan, pertsonaren dimentsio etikoa eta transzendentea funtsezko alderditzat jotzen da ikasleen hazkunde integralean. Horretarako, bultzatzen da:

• Honako hauek sustatzen dituzten **jarrerak** lantzea:

- Zentzu kritikoa bizitzaren eta gauzen aurrean
- Egiaren bilaketa
- Esker ona
- Askatasunaren eta tolerantziaren aldeko jarrera
- Justiziaren eta elkartasunaren aldeko konpromisoa
- Bizikidetzeta eta bakea eraikitzen laguntzea

• Adierazgarritasun handiagoko **balio** batzuk garatzea, honako esperientzia pertsonal eta komunitario hauen bidez:

- Norberaren aukeretan konfiantza izatea
- Aniztasuna aberastasun pertsonal eta komunitario gisa bizitzea
- Harrera eta hezitzaileen, ikasleen eta familien arteko topaketa
- Premia handiena duten ikasle, familia eta gizarte sektore guztiei lehentasuna ematea
- Esker ona, poza eta jai giroa, bizitzako zailtasunak gorabehera
- Sormena eta berritzeko espiritua, errutinaren, axolagabekeriaren eta konformismoaren aurrean
- Erantzukizuna lanean
- Hezkuntza Komunitateko kideen parte hartzea eta erantzunkidetasuna beren zereginaren garapenean

• **Transzendentziari irekitzeko prozesu bat** egitea honen bidez:

- Gizakiaren funtsezko galderak eragitea, eta existentziaren misterioari aurre egiten laguntzea
- Jesus Nazaretekoa eta haren mezu historikoa ezagutzea
- Norberaren, gizakiaren eta munduaren errealitatearen interpretazioa, ebanjelioaren gakoetatik abiatuta
- Fedearen bizipena eta adierazpen librea, gure Hezkuntza-Pastoral Komunitateetan

c) Norberaren bizi proiektua aurkitzea

Hezkuntza prozesuan zehar, eta adina eta heldutasun pertsonalaren maila kontuan hartuta, Bidaide Fundazioaren ikastetxeetan ikasleei laguntzen diegu **gainerakoengana bideratutako bizi proiektu errealista** bat aurkitzen eta gauzatzen. Horretarako, bultzatzen da:

• **Norberaren bizitzaren eta garapenaren gaineko lidergo pertsonala garatzea**

Gure eskolak pertsona bakoitzaren indibidualtasuna aitortu eta baloratzen du, eta bere adierazpen osoa sustatzen du. Aniztasuna gizarte osoarentzako aberastasun gisa ulertuta, errealitate aldakor baten aurrean erantzun berriak eskaintzeko funtsezko elementu gisa. Alderdi hauek bilduko genituzke:

- Nork bere bizitzako bidea eraikitzeko ekimena
- Nork bere kezkei erantzuteko eta horiek gauzatzeko beharrezko gaitasunak garatzea
- Konfiantza eta sormena, bizitzan sortzen zaizkion egoerei erantzun pertsonala emateko
- Hainbat ingurunetan modu pertsonalean eta benetakoan adierazteko gaitasuna, eta norberarenak ez diren beste errealitate eta ikuspuntu batzuk entzutekoa

• **Dimentsio sozio-ekologikoa garatzea**

Gure eskolak aitortzen du garrantzitsua dela ikasleen hezkuntza prozesuan haiek **gizarte bizitzan txertatzeko** prestatzea, eta beharrezko laguntza ematen du giza bokazioaren dimentsio horretan haz daitezen.

Horregatik, ikasleei laguntzen saiatzen gara, honako gaitasun hauek garatzeko:

- **Familia** pertsonen arteko harremanetarako leku pribilegiatua eta gizartearen oinarritzko elementua dela jakitea.
- Gizarte errealitatearen eta haren dinamismoen eta aukera

ideologikoen **irakurketa lasaia**, objektiboa eta kritikoa egitea.

– Aniztasunaren elementu positiboak eta **kulturen arteko gizartearen** balioak aintzat hartzea.

– **Lankidetz**a, **talde lana**, **elkartasuna** eta **komunikazioa** gauzatzea, bizikidetzeta eta zerbitzu esperientzia gisa.

– Norberaren bizitza **giza komunitateari zerbitzua emateko jarreretatik** bideratzea.

– Aktiboki laguntzea, ahal den neurrian, **gizarte justuago bat eraikitzen**, non pertsonak errespetatuko diren eta haien oinarrizko eskubideak sustatuko diren.

– Gure etxe komunarekin ardura eta zaintza harremana ezartzea, eta ingurumena eta baliabide naturalen erabilera zaintzea.

2.2. Diziplinazko kompetentziak

Bestalde, diziplina zehatzei erantzuten dieten kompetentzia espezifikoekin lotutako kompetentziak daude. Kompetentzia horiek garatzea ere funtsezkoa da bizitzan zehar egoera pertsonalei, sozialei, akademikoei eta profesionalei erantzuteko gai izateko, izan ere, bizi garen, garatzen garen eta gure bizi proiektua ezartzen dugun munduko eremuak dira. Kompetentzia horiek lotuagoak daude bizi garen garaiari eta testuinguru sozialari, eta, beraz, garrantzi zuzena dute harremanak izateko eta munduan integratzeko moduetan. Honako hauek dira:

a) Hizkuntza eta literatura komunikaziorako kompetentzia

Ahozko eta idatzizko testuak egoki erabiltzea —euskaraz, gaztelaniaz eta gutxienez atzerriko hizkuntza batean—, bizitzako hainbat egoeratan, eraginkortasunez eta hizkuntza aniztasuna errespetatuz.

b) Matematikarako kompetentzia

Ezagutza matematikoak aplikatzea bizi premiekin lotutako problemak interpretatzeko, deskribatzeko, azaltzeko eta horiei aurre egiteko, pentsamendu eta adierazpen moduak eta ikasgaiaren berezko tresnak erabiliz.

c) Zientzia eta teknologiarako kompetentzia

Ezagutza eta metodologia zientifikoak modu koherente, egoki eta zuzenean erabiltzea fenomeno naturalak interpretatzeko, eta aplikazio zientifiko-teknologiko adierazgarrienak erabiltzea hainbat testuingurutan, errealitatea ebidentzia zientifikoaren ikuspegitik ulertzeko eta erabakiak erantzukizunez hartzeko bizitza errealeko eremu eta egoera guztietan.

d) Gizartearentzako eta herritarrentzako kompetentzia

Eguneroko bizitzako egoeretan autonomiaz jardutea, herritar gisa, eta, horrela, ingurumena errespetatzen duen gizarte demokratiko, solidario eta inklusibo bat eraikitzen laguntzea.

e) Arterako kompetentzia

Hizkuntza artistikoa ezagutzea eta haren kodeak erabiltzea mezu artistikoak sortzeko, horien bidez adierazteko eta komunikatzeko, ekimena, irudimena eta sormena erabiliz.

f) Kompetentzia motorra

Portaera motorra garatzen lagunduko duten ezagutzak, prozedurak

eta jarrerak integratzea, eta bizi estilo osasungarriaren bidez ongizate integrala mantentzen lagunduko duten gorputz eta kirol jarduerak egiteko ohiturak hartzea.

Ondorio gisa esan dezakegu, pertsonaren eta haren garapen integralaren kontzepzio horretatik abiatuta, hezkuntza prozesu bat dela, non, bakoitzaren izatetik eta barnetik abiatuta, munduarekin eta diziplinekin harreman bat ezartzen dugun, indibidualtasun horrek adierazpena aurkitzen duen, eta, aldi berean, etengabe aberastu, hedatu eta sakontzen den, kanpoarekiko elkarreragin horren bidez. Elkarrizketa etengabea da, elkar elikatzea eta aberastea ahalbidetzen du, eta pertsonari aukera ematen dio denaren eta inguratzen duen munduaren arteko sintesia egiteko eta, horri erantzuna emanez, bere bizi proiektua garatzeko eta bere ingurunean eragin positiboa izateko.

3. HEZKUNTZA EKINTZAREN ZUTABEAK

Ikasleen garapen integrala lortzeko, funtsezkoa da pertsonak hezkuntza ekintzaren erdigunean jartzea, haien aniztasuna eta berezko balioa aintzat hartuta, eta, hortik abiatuta, hezkuntza xede hori betetzeko baliabideak egituratzea. Horrela, garrantzitsua da gure hezkuntza zereginean eragina duten eremuak kontuan hartzea eta planteamendu sistemikoa eta koherentea egitea.

Horrela, lau eremu bereizten ditugu:

1. Harreman ezigarriak
2. Irakaskuntza-ikaskuntza prozesua
3. Antolakuntza eta funtzionamendua
4. Espazioak

3.1. Harreman ezigarriak

Ikaskuntza prozesuaren bidez pertsona bakoitza bere dimentsio guztietan garatzen dela jotzen badugu, gure hezkuntza ekintzaren funtsezko elementuetako bat ikasleen ongizatea izango da.

Gaur egun badakigu ongizatea dela garapenaren oinarria, eta alderdi emozionala eta kognitiboa ezin ditugula bereizi. Ongizate emozionala ezinbesteko baldintza da oinarrizko kompetentziak garatzeko beharrezkoak diren funtzio kognitiboetara iritsi ahal izateko.



Ikasleen ongizatea haiekin ezartzen ditugun harremanen nolakotasunaren eta kalitatearen mendedago zuzenean, eta horrek berriro agerian jartzen du pertsona erdigunean jartzearen garrantzia eta hezkuntza komunitateko pertsona bakoitzak bere hazkunde prozesuan duen egitekoa.

Beraz, pertsona (kasu honetan, hezitzailea) pertsonak hezteko funtsezko elementua da: ikaslearen gaineko begirada, harekin eta haren errealitatearekin sortzen dugun lotura, eskaintzen diogun laguntza eta harekin garatu nahi ditugun konpetentzien eta balioen modelajea funtsezko elementuak izango dira helburu horretarako.

Bidaia Fundazioaren ikastetxeetako hezkuntza ekintzak ikasle bakoitzaren zaintza, harrera eta akonpainamendua ditu erdigunean. Gure ustez, gure Hezkuntza-Pastoral Komunitateak, egiturak baino gehiago, errealitate biziak dira, hazten eta garatzen diren neurrian existitzen direnak. Hezkuntza-Pastoral Komunitate orotan ziurtatu behar da pertsonak animatzeko eta haiei laguntzeko modu ugari sustatzen direla eta zaindu egiten direla. Pertsonen hainbat mailatan laguntzen diegu: giro orokorraren, taldeen, harremanen eta akonpainamendu pertsonalaren bidez.

3.2. Irakaskuntza-ikaskuntza prozesua

a) Curriculum

- Konpetentzietan oinarritua

Ikasleengan konpetentziak garatzeko ikuspegia «bizitzarako prestatzen duen eskola» izateko gure nahiarekin eta XXI. mendeko ezagutzaren gizarteko hezkuntzarekin lotzen da. Hezkuntza bat, helburu duena pertsonak trebatzea gai izan daitezen beren bizi proiektua garatzeko, agertoki ezezagunetan moldatzeko eta, beraz, bizitza osoan ikasten jarraitzeko Prozesu bizia izan behar du, edukiak eskuratzetik haratago doana eta ikaslea ezagutza eta soluzioak sortzen dituen subjektu bihurtuko duena. Konpetentzien arabera lan egiteak ahalbidetzen digu pertsonatik abiatuta bere trebetasunak garatzea.

- Pertsonalizazioa eta inklusioa

Kontuan hartuta pertsona bakoitza berdingabea dela eta talentu eta kezka berdingabeak dituela, hezkuntza prozesuak gai izan behar du ezberdintasun hori bere baitan jasotzeko eta indibidualtasun horri erantzuteko; aldi berean, aniztasuna baliatu behar du ikaskuntza esperientziak aberasteko eta zabaltzeko.

- Ikaskuntza esanguratsua

Bidaide Fundazioaren ikastetxeen hezkuntza xedearekin eta hartzaileen garapen integrala ulertzeko moduarekin bat etorriz, ikaskuntza adierazgarria da fedea-kultura-bizia elkarrizketa sustatzen duena, eta, beraz, kontuan hartzen dituena ikasgelaren aniztasuna, ikaslearen abiapuntua, haren errealitatea eta garapen beharrak, eta ikaslea bere bizi proiektuan integratzea. Beraz, ikaskuntzak funtsezko bi asmo izan behar ditu: ikaskuntza horri zentzua ematea eta kompetentzien garapena sustatzea. Horrela, ikaskuntzaren integrazio pertsonala ahalbidetzen da, gaitasun horiek hainbat egoerara transferitzeko eta, aldi berean, pertsonaren bizia behar bezala zuzentzeko.

b) Ebaluazio hezigarria

Ebaluazioa, ikasleek helburuak zer neurritan bete dituzten kalifikatzeko tresna bat ez ezik, ikaskuntza prozesu osoan presente eta erabat integratuta egon behar duen elementu bat ere bada. Horrela, hezkuntzaren xedeak betetzen laguntzen du, eta, aldi berean, informazio iturri bat da, ezagutzeko ikasle bakoitzaren abiapuntua ikaskuntza prozesuaren garapenean, bai eta hezkuntza helburuak sustatzeko laguntza beharrak identifikatzeko ere.

Beraz, aniztasunera eta ikaskuntzaren pertsonalizaziora egokitu behar du eta horiek errespetatu behar ditu, ikaslea subjektu aktiboa eta arduratsua izan dadin ikastetxean.


c) Printzipio metodologikoak

Hainbat metodologia erabil daitezke, baina oinarrizko printzipio komun batzuk izan behar dituzte:

- **Ikaskuntza aktiboa.** Ikasleak ikaskuntzaren gune eta ezagutza sortzaile izan behar du.
- **Ikaskuntza esanguratsua. Prozesuak ikaslearen errealitatetik, esperientzietatik eta aurretiko ezagutzetatik abiatzen dira. Hortik aurrera, sustatzen da, alde batetik, hainbat egoeratan aplikatu daitezkeen kompetentziak garatzea, eta, bestetik, gaitasun eta jakintza horiek integratzea ikaslearen bizi proiektuaren garapenean.**
- **Metakognizioa.** Etengabeko ikaskuntza prozesuan, ikasleak, bere autonomian eta autoerregulazioan sakondu ahal izateko, jabetu behar du bere barne prozesuez, premiez eta helburuak betetzeko eman behar dituen urratsez.
- **Transzendentzia.** Fedea-kultura-bizia elkarrizketak ikaskuntza prozesua aberasten du, bere existentziari, bereganatzen dituen jakintzei eta kompetentziei eta inguratzen duen munduari buruzko galdera sortzaileak formulatzeko gai den heinean.
- **Eraldaketa eko-soziala.** Ikasleari munduaren parte eta erantzunkide sentitzen laguntzea, bidezkoagoa den eta ingurumena errespetatzen duen gizarte baten eraikuntzan.

3.3. Antolakuntza eta funtzionamendua

Konpetentzien araberako ikuspegiak, non abiapuntua ikaslea bera den, atea irekitzen dio arintasun handiagoari eta jakintzak hain zatituta ez egoteari. Beraz, hezkuntza jardueraren antolakuntza desberdina izan daiteke erabiltzen ditugun prozesuen eta metodologiaren arabera.



Denbora, irakasgaiak eta pertsonak modu malguagoan antolatu behar dira, ikasle guztiengana iritsiko den hezkuntza integrala ahalbidetzeko: akonpainamendu pertsonala, diziplinarteko proiektuen bidezko lana eta ikaskuntza aktiboa.

Aldaketa horretan kontuan hartu beharreko funtsezko elementuetako bat irakasleak dira, bai eta proiektu partekatu bat sortzea ahalbidetuko duten harremanak ere. Funtsezko zutabetzat jotzen ditugu irakasleen ongizatea, ikasleekin ezartzen dituzten harremanak, eta lankideekin eta hezkuntza komunitatearekin duten harremana. Koirakaskuntza espazioak eta ikaskuntza komunitateak sortzea bultzatzen dugu. Helburua da elkarrekin bizitzeko eta ikasteko espazioak sortzea, haietan esperientziak, jakintzak eta zailtasunak trukatzeko, elkarrekin hausnartzeko eta gure lana etengabe hobetzen joateko.

3.4. Espazioak

Ikaskuntza garatzen den espazioa testuinguru multzo bat da, eta tresna bat izan behar du ingurune moldakorrek eta estimulatzaileak eskaintzeko, era horretan ikaskuntza esperientzia desberdinak ahalbidetzeko. Hortaz, bat dator gainerako eremuetan jasotako inklusio eta aldakortasun printzipioekin.

Espazioaz ari garenean, honako hauek ditugu aipagai:

- Arkitektura. Giro atsegina duten espazioak bultzatu behar ditugu, hainbat eratako jarduerak eta esperientziak garatu ahal izateko. Betiere bultzatu behar dira curriculumaren diziplinartekotasuna eta lan konstelazio desberdinak, modu inklusiboan.
- Eraikin digitala. Ikastetxeak bere hezkuntza espazio fisikoa eta denborazkoa zabaltzen du, bere egiturari baliabide digitalak gehitzen dizkion neurrian. Horrek balio du ikasleei ikasteko aukera gehiago eskaintzeko, eskola ordutegitik harago.
- Ingurunea. Ikasleen ikaskuntza eta hazkunde prozesuak ez dira mugatzen ikasgelako jarduerara. Ingurune naturalak eta kulturalak ikasteko aukera berriak eskaintzen dituzte, eta ikaskuntza esperientzia egiazkoak eta adierazgarriak sustatzen dituzte.

V. ANTOLAKUNTZA EREDUA

1.1. HEZKUNTZA-PASTORAL KOMUNITATEA

a) a) Hezkuntza-Pastoral Komunitatea

Bidaide Fundazioaren Hezkuntza-Pastoral Proiektua gauzatzeko, kide guztien asmoek eta usteek bat etorri behar dute.

Hauek dira Hezkuntza-Pastoral Komunitatearen subjektu eragileak:

- **Erakunde Titularra:** Bidaide Fundazioa.
- **Ikasleak:** hezkuntza ekintzaren gunea dira.
- **Ikastetxeko langileak:** irakasleek eta AZPko langileek hezkuntza lana partekatzen dute.
- **Gurasoak:** seme-alaben hezkuntzaren lehen arduradunak dira.
- **Beste pertsona batzuk:** ikastetxeko hezkuntza ekintzan parte hartzen dute.

Gure Hezkuntza-Pastoral Komunitatea errealitate dinamiko bat da, eta "eraikitzen" ari da. Horregatik, honako hauek bultzatzen ditugu:

- Hezkuntzaren ikuspegi komun bateranzko **konbergentzia**.
- **Kide izatearen eta erantzunkidetasunaren zentzua** Hezkuntza-Pastoral Proiektua landu, abian jarri eta ebaluatzean.
- Kide guztien **etengabeko prestakuntza gizatiarra, profesionala eta kristaua**.

Hezkuntza-Pastoral Komunitateko kide bakoitza ikastetxearen hezkuntza kalitatearen erantzule sentitzen da, bai eta bere errealizazio pertsonalaren eta sozialaren arduradun ere.

b) Erakunde Titularra



Bidaide Fundazioak, ikastetxeen Erakunde Titularra den aldetik, gure hezkuntza ekintzaren nortasuna bermatzen du.

Horretarako:

- Ikastetxeen jatorrizko erakundeetatik jasotako **ondare pedagogikoa** ematen du, bai eta Kristau Eskolaren ondare pedagogikoa ere.
- Ikastetxearen **azken erantzukizuna** betetzen du gizartearen, bote-re publikoen eta Hezkuntza Komunitate osoaren aurrean.
- **Hurbiltasun eta lekukotasun harremanak** ezartzen ditu Hezkuntza-Pastoral Komunitateko gainerako taldeekin.
- **Askatasun eta partaidetza giroa** sustatzen du.
- Komunitateko kideen arteko **koherentzia, hezkuntzaren kalitatea eta kohesioa** zaintzen ditu.

- Hezkuntza-Pastoral Komunitateko kideen arteko **erantzunkidetasuna** bultzatzen du.
- Bere gain hartzen ditu langileen **kontratu bidezko harremanetatik** etorritako eskubideak eta betebeharrak.
- **Egitekoak eskuordetzen ditu**, eta kide bakarreko eta kide anitzeko gobernu organoetan agindutako erantzukizunak gauzatzea bultzatzen du.
- Irakasleak **beharrezko baliabideez** hornitzen ditu, beren lana modu duinean eta arduratsuan egin dezaten.

Kontuan hartuta Erakunde Titularrak bere ordezkarien bidez eskaintzen duen berariazko zerbitzua eta irakasleei, gurasoei eta administrazio eta zerbitzuetako langileei ematen dien babesa, eskola norberaren gauza eta zeregina eta guztion erantzukizuna dela ikus daiteke.

c) Ikasleak

Haiek dira hezkuntza ekintzaren erdigunea. Gainera, gure hezkuntza ekintzan oinarritzko printzipio bat kontuan hartu behar da: ikaslea da bere prestakuntzaren subjektua, laguntza eta babesa behar ditu bere prestakuntza prozesuan, aktiboki esku hartzen du adinaren berezko eskakizunen arabera, eta gaitasunaren eta heldutasunaren arabera dagozkion erantzukizunak eta partaidetza mailak hartzen ditu bere gain.

Indarrean dagoen legedi ofizialak aitortutako eskubideak eta betebeharrak baliatuz, eta haien aukerak eta garapen mailak kontuan hartuta, ikasleek era askotan parte hartzeko aukerak aurkitzen dituzte gure ikastetxeetan, honako hauen bidez:

- Interesak eta kezkak adieraztea, tutoreekin, irakasleekin eta abarrekin duten hezkuntza harremanaren bidez.
- Taldearen, mailaren edo atalaren eta inguruko gertaeren bilakaerari buruzko ikuspuntuak trukatzeko hezitzaileekin.
- Ikasgelako berezko dinamikan erantzukizunak hartzea.
- Taldeak eta elkarteak antolatzea, iritziak bideratzeko, jarduerak eta akordioak proposatzeko, erabakiak hartzeko, konpromisoak hartzeko, gauzapena ebaluatzeko...
- Kide anitzeko animazio eta gobernu organoetan zuzenean edo eskuordetzan parte hartzea.

Bidaide Fundazioaren ikastetxeetan, ikasle bakoitza pertsona librea eta bere errealizazioaren protagonista eta arduradun nagusia da.

Dena den, jakinda ezin dutela bakarrik egin, haiei akonpainamendu errespetuzkoa, bizigarria, dinamikoa eta iradokitzailea eskaintzen saiatzen gara, haien aukera guztiak garatzen laguntzeko.

d) Ikastetxearen langileak

Irakasleek zein AZPko langileek hezkuntza lana partekatzen dute, eta haien hitza, testigantza, adorea, laguntza, aholkuak eta esperientzia funtsezkoak dira hezkuntza prozesua garatzeko.

Ikastetxearen langileen ezaugarri adierazgarrienen artean, honako hauek nabarmentzen ditugu:

- **Profesionaltasuna** beren lanbideko jakintzan eta trebetasunetan.
- **Koherentzia pertsonala**, ikasleentzat hezkuntza erreferentzia izateko.
- **Gazteenganako sentsibilitatea eta hezkuntza jarrera**, zailtasun handienak dituztenei arreta eskainiz.
- **Alderdi positibotik hezteko** gaitasuna, ikasleen aukeren arabera.
- **Transzendentziarako irekitasuna** eta familien **erlijio** eta **kultura aniztasunarekiko** errespetua.
- **Lankideekin harreman zintzoa eta lankidetzakoa** ezartzen dute, eta elkartasuna eta komunikazioa lantzen dituzte, talde lana, koherentzia eta denon artean egiten dugun lanaren jarraipena bultzatzeko.
- **Presentzia aktiboa eta adiskidetsua** duten ikasleen erdian daude.
- Eginkizun erabakigarria dute Hezkuntza-Pastoral Proiektua prestatu, gauzatu eta ebaluatzeko.
- Eskolaren hezkuntza ekintza globalaren erantzunkideak dira, eta modu aktiboan esku hartzen dute **ikastetxearen kudeaketan**, pertsona bakarreko eta kide anitzeko gobernu organoetan parte hartuz.

Bidaide Fundazioak bere profesionaltasuna zaintzen du, prestakuntza prozesu iraunkorrek, kulturalak, profesionalak eta kristauak gauzatu.

e) Gurasoak

Gure ikastetxeetan, familiak, eta bereziki gurasoak, ikasleen hezkuntzaren arduradun nagusiak dira.

Horregatik, ezinbestekoa da **familien eta eskolaren arteko harremana**, gurasoen eta hezitzaileen arteko trukearen eta lankidetzaren bidez, ezaugarri hauekin:

- **Hezitzaileek** aukera izan behar dute ikaslearen ezagutza handitzeko eta, horrela, laguntza eta orientazio aukerak areagotzeko.
- Gurasoek seme-alabek eskola lanean egindako aurrerapenei

edo haien zailtasunei buruzko informazio egokia jaso behar dute. Horretarako, hezitzaileei behar duten laguntza emango zaie beren prestakuntza zereginean.

Gure ikastetxeek, halaber, Ikasleen Gurasoen Elkartean hezkuntza balioa aitortzen dute; izan ere:

- **Hezkuntza-Pastoral Proiektua lantzen, garatzen eta ebaluatzen** parte hartzen dute, ikastetxean legez ezarrita dauden animazio eta gobernu organoetan parte hartuz.
- Ikastetxearen martxan **lankidetzaren eraginkorra** bermatzen dute.
- **Hezkuntza jarduera** osagarriak eta eskolaz kanpokoak antolatzen laguntzen dute.
- **Instantzia publikoen** aurrean, eta ikastetxean bertan, Hezkuntza Komunitatea osatzen duten familia guztien interesak ordezkatzen eta defendatzen dituzte.
- **Ikastetxeak ingurunean** duen presentzia eta harekiko harremana bultzatzen dute.

Horrela, elkarteak dira familiek eskolako bizitzan eta jardunean kolektiboki parte hartzeko duten eskubidearen bide normala.

2. HEZKUNTZA EKINTZAREN KUDEAKETA ETA PARTE HARTZEA

a) Partaidetza eta kudeaketa eredu

Hezkuntza-Pastoral Komunitatea osatzen dugunok erdigunean jartzen ditugu hartzailak eta haien interesak. Gainera, aktiboki parte hartzen dugu arazoei irtenbideak bilatzeko garaian, eta gure Hezkuntza-Pastoral Proiektua landu, gauzatu eta berrikusten dugu, erantzunkidetasunez jokatzeko.

Zeregin horretan, irizpide hauek hartzen ditugu kontuan:

- **Ikastetxearen xedea.** Kide anitzeko organoen osaerak eta eskumenek, bai eta esku hartze pertsonalek edo taldekoek ere, bat etorri behar dute eskolaren lehentasunezko helburuarekin eta Hezkuntza-Pastoral Proiektuarekin.
- **Erantzunkidetasuna.** Bilaketa sortzaile baterako konpromiso pertsonalak eta taldekoak erabakiak hartzen laguntzen du, izan ditzakeen ondorioak onartuta.
- **Subsidiarioritasuna.** Pertsona edo talde bakoitzaren erantzukizuna gauzatzeak berekin dakar emandako eskumenak errespetatzea.
- **Ordezkarritasuna.** Hezkuntza Komunitatearen kide bakoitzak, bere kabuz edo ordezkarriak aukeratuta, eragiten dioten erabakiak

hartzeko prozesuan esku hartzen du.

• **Globaltasuna.** Ikuspegi orokorrak konbergentzia koherentea bultzatzen du Hezkuntza Komunitatearen Hezkuntza-Pastoral Proiektua gauzatzean.

Horretarako, honako hauek landu behar dira:

- **Elkarrizketa lasaia eta eraikitzailea.**
- **Talde lana.**
- **Ikuspegi orokorra.**
- Kideen eta kide bakarreko eta kide anitzeko gobernu organoen artean **rolak eta funtzioak argi eta garbi esleitzea**, heldutasun pertsonalaren eta inplikazio mailaren arabera.
- **Ordeztagarritasun sistemak.**

b) Barne Erregelamendua

Gure ikastetxeen antolaketa alderdiak zehazteko garaian, kontuan hartzen ditugu indarrean dagoen legedia eta **Barne Erregelamendua**.

Azken hori Eskola Kontseiluak onartzen du, Erakunde Titularrak (Bidaide Fundazioa) proposatuta, eta kontuan hartzen du lege araudia eta errespetatzen du dokumentu honek ezartzen duena.

Erregelamenduaren **atalek** indarrean dagoen araudiari erantzuten diote:

- Estamentu guztiek **parte hartzeko bideak**.
- Hezkuntza-Pastoral Komunitateko kide guztien **eskubideak eta betebeharrak**.
- **Pertsona bakarreko gobernu organoen** eginkizunak.
- Kide anitzeko organoen osiera, eskumenak eta funtzionamendu arauak.
- Erantzukizuneko **karguak esleitzeko irizpideak**.
- Ikastetxean diziplinazko **gatazka egoerak** konpontzeko irizpideak.
- Eta arautu beharreko **beste alderdi batzuk** helburu dutenak eskola bizitza, Hezkuntza Komunitatearen kideen parte hartzea eta ikastetxearen Hezkuntza-Pastoral Proiektua normaltasunez gauzatzen laguntzea

